



3. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

LANTOKIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.



1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: HUTSUNEAK BETETZEKO ESALDI SORTA

Nola egin:

- Ondorengo testutik 10 esaldi kendu dira. Testuko zenbaki bakoitzak esaldi bat kendu dela adierazten du.
 - Aukeratu **erantzun-orrian** zenbaki bakoitzari dagokion esaldia eta erantzun-koadroa osatu, laukitxo bakoitzean dagokion letra jarriz..
 - Ariketa egiten hasi aurretik, bai artikulua osoa, bai kendutako esaldiak, arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
- Ariketa hau gainditzeko, 6 egin behar dituzu ondo.

ZAHARREN EZKONTZAK

Azken urte hauetan modan jarri dira zaharren arteko amodioak. Zaharren egoitzetan, hirugarren adineko jendearen opor-lekuetan (Mediterraneo aldean eta) zaharrek elkarren ezagutza egiten dute eta, horren ondorioz, maitemindu egiten dira (maitemindu, ilusionatu, interesatu, edo dena delakoa) eta zenbaitetan ezkondu. (__1__).

Bigarren amodio-aro horrek hala-holako erantzunak sortarazten ditu jendearen artean. (__2__). Aurreko ezkontzatik seme-alabak daudenean, ordea, ez dut uste hauentzat oso atsegingarria izaten denik arazoa. Kritikari arrunten ustez, herentziaren gorabehera izaten omen da seme-alabak aztoratzen dituenak. (__3__). Seme-alabentzat, guraso alargunduen bizitzetan pertsona berri bat agertzeak antzinako familiaren irudia desegiten du, gutxi edo gehiago, eta hortik dator sosegurik eza.

Bestalde, ingurukoen erantzuna dago. Ezkontzera doazen zaharren adiskide, lagun eta ezagunek, kanpoaldera zenbait keinu baikor egiten badute ere, barrutik eta egiaz sudurra zimurtzen dute. Eta ez da bekaizkeria: erridikuluaren zentzua da, batetik, eta zahartzaroaren mixeria eta ajeen kontzientzia, bestetik. Zaharrek beraiek baitakite ongien zenbat aje dagoen beren bizitzan, zenbat ahulezia fisiko, zenbat mania eta usadio bitxi, zenbat egoskorkeria. (__4__).



Ezkontzeko —harreman fisikoetan sartzeko batez ere—, gaztetasuna, osasuna eta xalotasun pixka bat behar dela iruditzen zait niri. (__5__). Egia da adin helduan egiten dituztela, batez ere gizonezkoek, erokeria erotikorik nabarmenenak; baina hori erotismo mentalera erotismo fisiko-sentimentalaren fantasma eta fantasiak eramaten dator.

Baina, normalean, zahartzaroari terapia gerontologikoak dagozkie: prostata, artrosia, tentsioa eta horrelakoak zaintzea eta, zorte pixka batekin, farmazietatik gehiegi pasatu gabe bizi ahal izatea. Eta paseatzea, oroitzea, arratsalde euritsuetan zinera joatea eta, agian, batek horrelako zaletasunik badu, paperen batzuk irakurtzea. (__6__). Horretarako ez, eta ezkontzeko bai?

Ongi pentsatzen jarriz gero, iruditzen zait Elizak (Eliza Ama Katolikoak, alegia) debekatu egin beharko lituzkeela zaharren ezkontzak. (__7__). Baina nik uste dut Elizak badakiela horren erantzuna zertan datzan: zahartzaroan lizunkeria ilusio edo fikzio bat baizik ez dela. Eta hori horrela izanez, elkarlaguntzaren argudioak duela pisurik handiena.

(__8__). Zaharrak zirelako tradizioaren eta sineskeren euskarria. Zaharrei zitzaien begirunea, begirune sakratua zen batetik, eta bestetik pietatearen adierazpen jakintsua: zaharrei ongia egiten zitzaien, gazteagoek helduei egun batean berdin egin ziezaieten, zahartzaroan.

Duela gutxi arte, behinik behin, baserrian —edo kortijoan, landetxean eta antzekoetan— toki fisikoa izaten zuten zaharrek, ibiltzeko, mugitzeko eta egoteko. Bizileku gisa ez ziren erosoak, baina gaurko apartamentu eta pisu murrizak baino askoz handiagoak eta sanoagoak ziren. (__9__).

Lege onari jarraituz, zaharrek patriarkek bezala bizi eta hil behar lukete: begirunez inguraturik, etxe handi bateko balkoitik betiko lurrari edo itsasoari begira. (__10__). Horregatik ezkontzen ote diren, agian, zaharrak.

Xabier Lete
Hitz lau, 2003
Egokitua



1.1. ERANTZUN-ORRIA

- A. Eta ez da oso atsegina hori guztia beste bati erantsi eta leporatuko diozula jakitea, eta hark zuri berea erantsiko.
- B. Toki onean gaude: ez itsaso, ez hegazti, ez mendixka, ez zuhaitz.
- C. Batzuen iritziz, gauza ederra da zaharrak maitemindu eta ezkontzea.
- D. Esan ohi da zaharrek ez dutela, askotan, horretarako gogorik eta indarrik izaten.
- E. Gainera, zaharrek baserrietan nagusigoa zuten; testamentuaren itzalak indar handia ohi zuen.
- F. Hori batzuetan egia izanik ere, ez dut uste hain arrazoi zekenak gogaitzen dituenik.
- G. Lizunkeria eta jolasa ez baldin badira ezkontzaren helburu funtsezkoa, erreprodukzioa eta familia baizik, esango didazue nola legitima daitekeen zahar antzuen ezkontza.
- H. Antzinako bizimodu zaharrean, adineko jendeak itzal handia omen zuen familian eta gizartean.
- I. Gehienetan jende alargundua izan ohi da, baina ez beti.
- J. Ezkontza, sexua eta gimnastika —horiek guztiak— gaztetako kontuak dira, nahi duenak nahi duena esan.

ERANTZUN-KOADROA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



1.3. ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgaia: "ZAHARREN EZKONTZAK"

Ariketa-mota: HUTSUNEAK BETETZEKO ESALDI-SORTA

Baremoa: 6 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

ERANTZUN ZUZENAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
I	C	F	A	J	D	G	H	E	B



2. IDAZMENA

Egitekoa: GAI BATI BURUZKO IDAZLANA.

- Ondoko orrietan 2 gai dauzkazu. Horietako bat aukeratu behar duzu eta horren inguruan idazlana egin.
- Gaiarekin batera, laguntza gisa, gai horren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil ditzakezun zenbait puntu.

Oharrak:

- Kontuan hartu idazlana egin behar duzula, ez duela balio gauzak eskematikoki aipatzeak; alderantziz, esaten direnak azaldu egin behar dira, konposizioa egin behar da. Bestalde, lagungarri gisa ematen diren informazioko esaldiak beste barik kopiatzeak ere ez du balio.
- Idazlanak **50 lerro** izan behar ditu, gutxienez. Garrantzitsuena, ostera, ez da luzera hori betetzea, behar bezalako idazlana egitea baizik.
- Idazlana aztertzeke orduan kontuan hartuko dira gaiarekiko lotura, testuaren egituraketa, erregistroa, testuaren barneko lotura eta gramatika-zuzentasuna.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.



1. GAIA: **NOLA PREBENITU TRAFIKO-ISTRIPUAK**

Euskadiko errepideetan
170 lagun hiltzen dira
urtean. Espainian 11
lagun hiltzen dira egunero.
Kopuru horiek Europako
handienetakoak dira.

Urtetik urtera ugaltzen ari diren
istripuen arrazoi nagusia gidaria bera
da. Bigarren arrazoa, beste gidariren
bat. Eta, oso atzetik datoz autoen
matxurak eta errepideen egora
txarrak eragindakoak.

Jarri berria den araudiaren
arabera, gidabaimena gal
dezakete gidariek. Bestalde,
puntukako gidabaimena ere
indarrean da, Europako
hainbat estatutan egiten den
bezala.

**Arazo larri honi aurre egiteko,
Frantzia hartu berri dituzten
neurri zorrotzak direla-eta,
%20 jaitsi dira istripuak.
Espainiako agintariek nahiago
dute heziketaren bidetik jo,
zigorren bidetik baino.**

GIDOIA

- Hainbeste istripu egoteko arrazoiak: abiadura, alkohola, kultura...
- Istripuen ondorioak: hildakoak, zaurituak, ekonomiarekin lotutakoak...
- Istripuak gutxitzeko konponbideak: isunak, kanpainak, heziketa...



2. GAIA: **TELELANA, ETXETIK MUGITZEKE LAN EGITEKO AUKERA**

Familia eta lana uztartzeko modua eskaintzen du. Batzuek diotenez, laster bulegoetako lan gehienak etxetik bertatik eramango dira aurrera.

Lan-mota honek alderdi txarrak ere baditu, jakina. Garrantzitsuena da lanaren eta aisialdiaren eremuak ez bereiztea. Buruarentzat kaltegarria da espazioak ez desberdintze hori; estresa sortzen du.

Lehen etxean lan egiten zuten zenbaitek nahiago dute beste batzuekin batera lan egin zentro batean. Diotenez, etxean, bakardadean, okerrago egiten da lan; taldea beharrezkoa da.

Administrazio publikoan ere izan lezake lekua telelanak, baina gestioa aldatu beharra dago, nabarmen. Ordutegia betetzeak ez luke orain adinako garrantzirik edukiko; emaitzak dira kontrolatu beharrekoak.

GIDOIA

- Telelanaren alde onak eta txarrak.
- Zer aldaketa ekarriko dituen lan-munduan: autoenplegua...
- Aplikatu ote liteke telelana administrazio publikoan?



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60



65

70

75

80